

Web 2.0 tresnak, hausnarketa-praktika irekiak eta ikaskuntza-sare pertsonalak: Twitter, blogak eta Google Drive irakasleen topaketetan

Irakasleen topaketek aukera aparta eskaintzen dute prestakuntzarako eta profesionalen arteko loturak indartzeko. Halaber, eta artikulu honetan azalduko den bezalaxe, sare sozialak erabili litezke, bai topaketetan zehar komunikatzeko, bai horiexek amaitutakoan bertan landutako gaiei buruz hausnartzeko. Hurrengo lerroetan, Twitterri erreparatuko zaio, eta Interneteko plataforma batzuk –blogak eta Google Drive– aztertuko dira.

Are gehiago, erakutsi nahi da tresna eta zerbitzu horiek lagungarriak direla, irakasleen etengabeko prestakuntza indartu eta sustatzeko.